



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBAO URBAN CIRCUIT, SL-20005-EKO EKONOMIA, FINANTZA ETA LEGEZKOTASUNAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Bilbao, Urban Circuit, S.L- 2005eko ekonomia, finantza eta legezkontasunaren txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

HKEEk aztertu dituen alderdiak izan dira urteko kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela eta kontratazioko arautegia bete dela egiaztatzea.

Bilbao Urban Circuit, SL sozietatea Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak partaidetza berarekin sortua da eta honen helburua kirol ikuskizun bereziak antolatu eta egitea da, nazioarte mailan garrantzia duten automobilismo, motorismo, itsasoko edo aeronautikako probak, jarduera ekonomiko, teknologiko, kultural eta turistikoa hedatzen lagunduko dutenak eta Bilboko Hiribilduaren, Bizkaiaren eta Euskal Herriaren interesentzat onuragarri izango direnak.

Sozietatearen jarduera arautzen duen arautegia betetzeari dagokionez, fiskalizazio txostenak aldeko iritzia eman du eta salbuespenen bat egin da kontraturen batean publizitate eta lehia ezarri ez delako edota lehiaketaren bat Europako Batasuneko Aldizkarian argitara eman ez delako.

Sozietatearen kontuei dagokienez, HKEEk uste du egoki islatzen dituztela jardueraren emaitzak; ordea, horien gaineko hainbat doiketa egin du, besteak beste aipagarri dira, Promovisak egindako 564.000 euroko gastuak sozietateari egozteak eta lasterketaren hurrengo edizioak ez egiteak eragindako 150.000 euroko kalte-ordainak, berriz, Udalari egozteak.

Lasterketaren kostua guztira 11 milioi eurokoa izan zen eta sortutako diru-sarrera zuzenak 3 milioi eurokoak.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Halaber, sozietateak berak aholkularitza enpresa bati agindutako txosten batean jardueraren inpaktuari buruzko informazioa jaso da, sortutako aberastasunari eta komunikabideetan izan duen oihartzunari dagokionez.